

IKASTURTEA/ CURSO ACADÉMICO 2026/27

IKASGAIA/ASIGNATURA:	ENPRESA ETA BERRIKUNTZA	KURTSOA/CURSO:	2. mailan
MODULUA/MÓDULO:	Berrikuntza	KOKAPENA/UBICACIÓN:	3. seihilekoa
	23 Industria-ingeniaritza, ingeniaritza mekanikoa, ingeniaritza automatikoa, industria-antolamenduaren ingeniaritza eta nabigazio-ingeniaritza.	IRAUPENA/DURACIÓN:	150 h
ESPARRUA/ÁMBITO:		KREDITUAK/CRÉDITOS:	6 ECTS
IZAERA/CARÁCTER:	Oinarrizkoa	HIZKUNTZA/IDIOMA:	Euskara/Gaztelania
KODEA/CÓDIGO:	28466	IRAKASLEA/PROFESOR:	Juan José Larramendi Azcoitia Roberto Altzerreka Etxeberria
PLANA/PLAN:	2024		
AIPAMENA/MENCIÓN:	---		

HELBURUA/OBJETIVO:	Enpresa-kudeaketari lotutako gaitasunak garatzea, ikuspegi estrategikoenetik operatiboraino, ekintzailatza-prozesuak barne. Ikasleek gai izan beharko dute ingeniaritzaren arloan eskuratutako gainerako gaitasunak enpresa-kudeaketan integratzeko, bai merkatuan finkatutako enpresetan, bai enpresa berrietan edo enpresa-proiektuetan.
---------------------------	--

IKAS-PROZESUAREN EMAITZAK/RESULTADOS DE APRENDIZAJE

RCO5 - Ekonomiaren, Industria Antolaketa eta Kudeaketaren eta Antolakuntza Ingeniaritzaren funtsezko ezaugarriak ezagutzea. MOTA: Ezagutzak edo edukiak

RC1 - Ingeniaritzaren berezko ohiturak eta trebetasunak garatzea, pentsamendu sistemikoa, iniziatiba, sormena, lankidetzak, komunikazioa eta kontsiderazio etikoak bezalako trebetasunak erabiliz. MOTA: Konpetentzia

RC8 - Enpresa baten arlo desberdinak martxan jartzea eta zuzentzea, erakundearen eta haren jardueren ikuspegi orokorrarekin, berrikuntza eta hobekuntza-aukerak kontuan hartuta. MOTA: Konpetentzia

RHE3 - Taldean lan egitea, helburu komun bat lortzeko aktiboki parte hartuz eta pertsonen arteko konfiantzazko eta elkar laguntzeko harremanak ezarriz. Mota: Espekto zabaleko trebetasunak

RHE5 - Berrikuntza-ingeniartzaren ezagutzak aplikatzea, erakundearen estrategiari modu proaktiboan laguntzeko, negozioaren ikuspegi berritzaile baten bidez, eta ingurumen-jasangarritasunarekin eta genero-berdintasunarekin konprometituta. Mota: Espekto zabaleko trebetasunak

EDUKIAK/TEMARIO

1. Enpresa-ekonomia:
 - 1.1. Enpresaren izaera
 - 1.2. Kudeaketa estrategikoa eta ekintza-planak (antolaketa, plangintza, programazioa eta kontrola)
 - 1.3. Finantza-erabakiak (inbertsioen analisia, errentagarritasuna, kapital-kostua)
 - 1.4. Kontabilitatea eta balantzeen analisia
 - 1.5. Kostuen funtzioa.
2. Berrikuntza-prozesuko oinarritzko jarduerak:
 - 2.1. Berrikuntza irekia, elkarlaneko berrikuntza
 - 2.2. Tresna bideratzaileak (sormena eta ideien sorrera, berrikuntza motak, prozesuaren funtsezko elementuak, berrikuntzaren teoria eta oinarritzko definizioak, berrikuntza-jardueren neurria eta laguntza-tresnak)
3. Ekintzailtza:
 - 3.1. Sarrera
 - 3.2. Ideia berritzailetik merkatura
 - 3.3. Negozio-ereduak sortzea.
 - 3.4. Negozio-plana

IRAKASKUNTZA MOTA/TIPO DE DOCENCIA

	M	CP	PL	PO	SP	D
Aurrez aurrekoak (orduak)	30	10	0	0	20	0
Lan pertsonala (orduak)	45	15	0	0	30	0

M: Magistrala / CP: Gelako ariketak / PL: Laborategiko praktikak / PO: Ordenagailu bidezko praktikak / SP: Seminario-proiektuak / D: Duala

BALIABIDE DIDAKTIKOAK/MÉTODOS DIDÁCTICOS

- X Irakasleak azalpenak emateko eta/edo erakusteko saioak.
- X Irakaslearen laguntzarekin gelan egindako ariketak.
- X Aplikazio praktikoa, bakarka edo taldean ariketak, simulazioak eta esperientzioak eginez.
Moduluaren bidez eskuratu beharreko gaitasunen adierazgarri den kasu "integratibo" baten analisia

BIBLIOGRAFIA/BIBLIOGRAFÍA

EBALUAZIO METODO ETA IRIZPIDEAK/MÉTODOS Y CRITERIOS DE EVALUACIÓN

Irakasgai hau ebaluatzeko proba eta jardueren ardatz izango dira EHUren araudian xedatzen diren printzipioak: zuzentasun akademikoa, zintzotasuna eta jarrera etikoa. Ikasleak onartzen eta gogoratzen du unibertsitatean matrikula egin zuenean Zintzotasunez eta portaera etikoz jokatzeko konpromisoa adierazpena izenpetu zuela eta, haren bidez, hitzeman zuela plagiorik edo bestelako iruzur akademikorik ez zuela egingo, ezta ebaluazio probetan eta lanetan baimenduta ez dagoen objektu eta gailu teknologikorik erabiliko ere (adimen artifizialeko tresnak barne, halakorik berariaz baimenduta ez dagoenean). Betebehar horiek urratzeak ondorio akademiko eta diziplinazkoak izan ditzake, unibertsitatean indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera.

- X Etengabeko ebaluazio-sistema
- X Azken ebaluazio-sistema

OHIKO DEIALDIA/ CONVOCATORIA ORDINARIA

- 55 % Idatzizko eta/edo ahozko proba
 - Praktikak egitea eta/edo haiei buruzko txostena egitea
- 45 % Txostenak/Entregableak/Ahozko aurkezpenak/Proiektuak
 - Dualean jarduerak eta/edo proiektuak egitea

Argibideak/Aclaraciones:

ETENGABEKO ebaluaziorako irizpideak:

Taula 1: Etengabeko ebaluazio metodoaren jarduerak

Ebaluazio-jarduera	Aldia	Puntuazioa	Oharrak
Eskolako zereginak eta etxeko lanak (taldekakoa - banakakoa)	Lauhilekoan zehar	% 25 0-25 puntu	Entregatu gabeko ataza 0 puntu. Gainerako notekin batezbestekoa egiteko, 25etik gutxienez 10 puntu lortu behar dira.
Kontrola (banakakoa)	Hasi eta 5-6 astera (kontrol-aldia).	% 15 0-15 puntu	Materia ez da azterketa finaletik kanpo geratzen. Gainerako notekin batezbestekoa egiteko ez dago gutxieneko notarik.
Azterketa finala (banakakoa)	Azterketa garaia	% 40 0-40 puntu	10etik 4 puntu lortu behar dira gutxienez , gainerako notekin batezbestekoa egiteko.

ACH proiektua edo ikasgai bakarreko proiektua (Taldekakoa - banakakoa)	Lauhilekoan zehar	% 20 0-20 puntu	Nahitaezkoa da eta ACH proiektuaren ebaluazio-sistema jarraitzen du (10etik 4ko gutxieneko nota)
--	-------------------	--------------------	---

Ebaluazio-sistemako jarduera guztiek garrantzi bera dute. Irakasgaia ebaluatzeko edozein jardueratara aurkezten den ikasleak, jarduera guztietara aurkezten ez bada ere, azken kalifikazioa izango du, dagokien batezbestekoa eginda. 0 kalifikazioa izango dute aurkeztu ez diren jarduerak. Irakasgaia gainditzeko, zehaztutako gutxienekoak bete behar dira, eta 10etik 5eko edo hortik gorako kalifikazioa lortu behar da lau blokeen batezbestekoa egitean (100etik 50 puntu, ikus Taula 1).

Atalen batean eskatutako gutxienekoa lortu ez bada, azken kalifikazioa batezbestekoa kalifikazio guztiekin egingo da, eta batezbestekoan lortutako nota:

batezbestekoa $\geq 4 \rightarrow$ azken kalifikazioa 4 izango da.

batezbestekoa $< 4 \rightarrow$ kalifikazioa batezbestekoan lortutakoa izango da

AZKEN ebaluaziorako irizpideak:

Azken ebaluazio-metodoa hiru probatan datza:

- **1. proba:** zereginak (25 puntu. Gainerako notekin batezbestekoa egiteko, gutxienez 10 puntu lortu behar dira).
- **2. proba:** azterketa (55 puntu. Gainerako notekin batezbestekoa egiteko, gutxienez 22 puntu lortu behar dira).
- **3. proba:** proiektua (20 puntu. Gainerako notekin batezbestekoa egiteko, gutxienez 8 puntu lortu behar dira).

Irakasgaia gainditzeko, zehaztutako gutxienekoak bete behar dira, eta 10etik 5eko edo hortik gorako kalifikazioa lortu behar da hiru blokeen batezbestekoa egitean (100etik 50 puntu). Atalen batean eskatutako gutxienekoa lortu ez bada, azken kalifikazioa batezbestekoa kalifikazio guztiekin egingo da, eta batezbestekoan lortutako nota:

batezbestekoa $\geq 4 \rightarrow$ azken kalifikazioa 4 izango da

batezbestekoa $< 4 \rightarrow$ kalifikazioa batezbestekoan lortutakoa izango da

EZOHICO DEIALDIA/ CONVOCATORIA EXTRAORDINARIA

55 % Idatzizko eta/edo ahozko proba

Praktikak egitea eta/edo haiei buruzko txostena egitea

45 % Txostenak/Entregableak/Ahozko aurkezpenak/Proiektuak

Dualean jarduerak eta/edo proiektuak egitea

Argibideak/Aclaraciones:

ETENGABEKO ebaluaziorako irizpideak:

Ikasturtean zehar etengabeko ebaluazioan ebaluatutak izan diren eta atal batzuen gutxienekoak (Zereginak, Azterketa edo Proiektua) gainditzeke dituzten ikasleek, soilik atal horiek gainditzera aurkezteko aukera dute, eta gutxienekoa lortutako atalen nota gordeko zaie.

Halaber, ikasleak atalen nota hobetzera aurkezteko aukera izango du. Azterketa hobetzera aurkeztuz gero, azterketaren ehunekoa % 40 edo 55ekoa izatea aukeratu ahalko du, ikasleak kontroleko nota gorde nahi duen ala ez kontuan hartuta.

Ikasleek, ohiko deialdia ofizialki berrikusten denetik 3 eguneko epean, blokeren bat hobetu nahi duten adierazi beharko diete posta elektronikoz irakasleei. Blokeren bat hobetzera aurkeztuz gero, aurreko kalifikazioa galduko da.

AZKEN ebaluaziorako irizpideak:

Ebaluazio-irizpideak ohiko deialdian aplikatzen diren berberak dira.